

ASTERIX ETA OBELIX: MAIESTATEAREN ZERBITZURA



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|---|
| Jatorrizko izenburua | Astérix et Obélix: Au Service de Sa Majesté |
| Jatorrizko hizkuntza | Frantsesa |
| Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| Urtea | 2012 |
| Iraupena | 109 min |
| Herrialdea | Frantzia |
| Generoa | Abentura |
| Zuzendaria | Laurent Tirard |

Banatzailea

Euskaraz bikoiztua eta azpтитuluekin

Sinopsia

TRIPICTURES

Kristo Aurreko 50. urtea. Zesarrek konkista-gosea du. Legio entzutetsuen agintari uharte bat inbaditzea erabaki du, mundu ezagunaren muga: Britainia herrialde misteriozua.

Garaipen azkarra eta erabatekoa izan du. Edo... ia erabatekoa. Britainiako herri txiki batekoek eutsi egin die, baina indarrrik gabe geratzen ari dira. Kordeliak britoiien erreginak, Ontorax ofizial leiala Galiara bidali du laguntza bila. Izan ere, han beste herri menderakaitz bat dago, erromatarrei eusteagatik oso ezaguna. Galiako herri hartan Asterix eta Obelix lanpetuta daude: Luteziatik etorri da Gudurik, buruzagiaren iloba lotsagabea, eta hura zaindu behar dute.

Ontoraxen laguntza-eskariari erantzunez, upel bete edabe magiko ematea erabaki dute. Asterixek eta Obelixek lagunduko diote bidean, eta Gudurix ere joango da, aukera paregabea izango baita haren heziketarako. Tamalez, ezer ez da pentsatu bezala joango.

ASTERIX ETA OBELIX: JAINKOEN EGOITZA



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|--------------------------------|
| Jatorrizko izenburua | Astérix: Le domaine des dieux |
| Jatorrizko hizkuntza | Frantsesa |
| Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| Urtea | 2014 |
| Iraupena | 85 min |
| Herrialdea | Frantzia |
| Generoa | Komedia |
| Zuzendaria | Alexandre Astier, Louis Clichy |

Bantzailea


WARNER BROS
ENTERTAINMENT

Euskaraz bikoiztua

Sinopsia

Kristo Aurreko 50. urtean gaude. Galia guztia erromatarrengatik konkistatuta dago. Dena? Ez! Galiar herri txiki bat oraindik libre da, eta beti erasotzaileak gelditzen dituzte. Egoerarekin suminduta, Julio Cesarrek estrategia aldatzeko erabakia hartuko du eta luxuzko erromatar herri bat eraikitzen hasiko da "Jainkoen egoitza". Gure galiar lagunak erromartarrak eusteko gai izango al dira? Turismoaren herri erakargarri soil bat bilakatuko al da? Asterixek eta Obelixek Cesarren plan horiei aurre egin beharko die.

CHEF



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|---|
| Jatorrizko izenburua | Le Chef |
| Jatorrizko hizkuntza | Frantsesa |
| Kalifikazioa | Zazpi urte baino gutxigoentzako ez gomendatua |
| Urtea | 2012 |
| Iraupena | 85 min |
| Herrialdea | Frantzia |
| Generoa | Komedia |
| Zuzendaria | Daniel Cohen |

Banatzailea

A CONTRACORRIENTE

Sinopsia

Alexandre Lagarde chef handia ez da ondo konpontzen bere jatetxearen zuzendaritza berriarekin, azken honek sukaldaritza molekularren aldeko apustua egin duela eta. Apurka-apurka Alexandreren sukaldari taldeko kideak atzerriko jatetxeetara aldatu dituzte. Lagarde etsita dago, ez dauka idearik gidako gastronomia kritikariek ebaluatuko duten menu berria osatzeko. Inspirazioa eta laguntzaile berri bat behar ditu eta, orduan, ezagutuko du Jacky, goi-sukaldaritzan zaletua den sukaldari autodiakta, burugorria eta talentu handikoa.

DIFRET



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|--|
| Jatorrizko izenburua | Difret |
| Jatorrizko hizkuntza | Amarico (Etiopiako hizkuntza ofiziala) |
| Kalifikazioa | 12 urtetik gorakoentzako egokia |
| Urtea | 2014 |
| Iraupena | 99 min |
| Herraldea | Etiopia |
| Generoa | Drama |
| Zuzendaria | Zerasenay Berhane Mehari |

Banatzailea


Euskarazko azpitituluekin

Sinopsia

CAMEO

Addis Abeban, Meaza Ashenafi abokatuak legelari baten babesa behar duten emakumeei eta haurrei laguntzeko sare bat sortu du. Poliziaren eta Gobernuaren etengabeko xaxatzeari aurre egin beharko dio. Hala ere, Hirut 14 urteko neskatoa defendatzera ausartuko da. Hirut, ikastetxetik itzultze ari zela, bahi eta bortxatu egin zuten, baina berak bahitzaile bat hil eta ihes egitea lortu zuen. Bere buruaren defentsan egin zuen arren, heriotzazigorra jasotzeko arriskuan dago Hirut.

DORAEMON ETA NOBITA HOLMES ETORKIZUNEKO MUSEO HARRIGARRIAN



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|---|
| Jatorrizko izenburua | Doraemon: Nobita no Himitsu Dôgu Museum |
| Jatorrizko hizkuntza | Japoniera |
| Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| Urtea | 2013 |
| Iraupena | 100 min |
| Herraldea | Japonia |
| Generoa | Animazioa |
| Zuzendaria | Yukiyo Teramoto |

Banatzailea

LUK INTERNACIONAL

Sinopsia

Ustekabeen Deluxe izeneko lapur misteriotsu batek dimentsioen arteko zuloa zeharkatu du Doraemoni lo dagoen bitartean txintzarria ebasteke. Galdutako txintzarria lekutzeko, Doraemonek Sherlocken tankerako jantziak eman dizkio Nobitari, (kapela, makila eta lupa) eta jantzi horiekin atzemandako lorratzek Etorkizuneko Museora daramatzate Nobita eta bere lagunak, XXII. Mendera.

Lagun taldeak bertan ezagutuko ditu museoko zuzendaria, Hartmann eta Pepler profesoreak, eta Kurt Hartman, Hartman profesorearen biloba, inguru hankaz gora jarri besterik egiten ez duen asmatzaile hasiberria. Hainbat sekretu ezkututzen dituzten pertsonak dira... eta mehatxu handi batek erasaten die.

Doraemonek, Nobitak eta lagunak lortuko ote dute txintzarria berreskuratu eta museoa gainera datorkion arriskutik salbatzea? Ez da elementala, Doraemon maitea!

DORAEMON STAND BY ME



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|--------------------------------|
| Jatorrizko izenburua | Stand by me Doraemon |
| Jatorrizko hizkuntza | Japoniera |
| Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| Urtea | 2014 |
| Iraupena | 95 min |
| Herrialdea | Japonia |
| Generoa | Animazioa |
| Zuzendaria | Takashi Yamazaki, Ryūichi Yagi |

Banatzailea

Euskaraz bikoiztua eta azpituluekin

Sinopsia

LUK INTERNACIONAL

Nobita Nobi nahiko mutil traketsa da eta gehientsuenetan gauzak alderantziz ateratzen zaizkio. Egun batean Sewashi haur misteriotsuaren bisita hartuko du. XXII. mendetik datorren bere hereniloba dela esaten dio. Bere etorkizuna desastre hutsa dela eta familia guztia suntsiko duela, hainbat belaunaldiz.

Sewashiren ustetan, dena dela, oraindik badago hori ekiditeko aukera eta Doraemonek bere robota utziko dio Nobitari soluzio hori aurkitzen lagundu diezaion. Hasiera batean, Doraemonek ez du egoera batere argi ikusiko, baina elkarrekin hainbat abentura igaro ostean, katu kosmikoak gakoa topatu duela usteko du: maitasuna.

DRAGON BALL Z BATTLE OF GODS



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|----------------------------------|
| Jatorrizko izenburua | Doragon Bôru Zetto: Kami to Kami |
| Jatorrizko hizkuntza | Japoniera |
| Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| Urtea | 2013 |
| Iraupena | 85 min |
| Herrialdea | Japonia |
| Generoa | Animazioa |
| Zuzendaria | Masahiro Hosoda |

Banatzailea

Euskaraz bikoiztua eta azpituluekin

Sinopsia

SELECTA VISION

Maji Booren aurka borrokatu eta urte batzuk geroago, krisi batek mehatxatu du lurra. Bills, txikizioaren jainkoak, unibertso osoko orekari eusten diona, bere loaldi luzetik esantu da. Saia batek Freezer garaitu duen zurrumurrua entzun ondoren, Bills haren bila abiatu da. Denbora luzea igaro ondoren hain etsai indartsua aurkitzean hunkituta Gokuk erronka jo dio txikizioaren jainkoari, baina ezinean dihardu jainkoaren ahalmena izugarrikoa baita. Hartan, Billsek agur-hitz kezkarriak jaulki ditu: “Lurrean izango ahal da norbait txikitzea merezi duenik!” Goku, Vegeta, Gohan eta lurreko gainerako gerlariak izango ote dira gai aurrekaririk ez duen indar txikitzaile hau geldiarazteko?

DRAGON BALL Z: F BERPIZTUA



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|---|
| Jatorrizko izenburua | Doragon Bôru Zetto: Fukkatsu no F |
| Jatorrizko hizkuntza | Japoniera |
| Kalifikazioa | Zazpi urte baino gutxigoentzako ez gomendatua |
| Urtea | 2015 |
| Iraupena | 93 min |
| Herrialdea | Japonia |
| Generoa | Animazioa |
| Zuzendaria | Tadayoshi Yamamuro |

Banatzailea

SELECTA VISION

Sinopsia

Sorbet eta Tagoma, Frizer enperadorearen armada hondatutakoan bizirik geratutako bi kide, Lurrera datoz. Dragoi Bolak erabiltzeko asmoa dute espazioko gaizkilea berpiztu eta haren inperioa berreraikitzeko. Hilabete batzuk geroago, Frizer berbera dator Lurrera armada handi batekin, helburu bakar bat buruan hartuta: Son Gokuz mendekatzea. Goku eta Vegeta entrenatzen ari dira Billsekin eta Whisekin. Haiek itzuli bitartean, Gohanek, Satan Txikik, Krilinek eta beste lagunek aurre egin beharko diete inbaditzaileei. Frizerrek, ordea, eraldatze berri bat egitea lortu du bizitzan lehenengoz entrenatu ondoren, eta bakarrik aurre egin ahal izango diote Lurra erabateko hondamenetik salbatzeko.

EGUN HANDIA



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|-----------------------------|
| Jatorrizko izenburua | Le Grand Jour |
| Jatorrizko hizkuntza | Frantsesa |
| Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| Urtea | 2016 |
| Iraupena | 86 min |
| Herrialdea | Frantzia |
| Generoa | Dokumentala |
| Zuzendaria | Pascal Plisson |

Banatzailea

Sinopsia

ABORDAR

Egun handia gertu dago. Hilabeteak daramatzate, baita urteak ere, prestatzen. Badakite egun berezi horrek bizitza alda dezakeela betirako. Dokumentalak proba bati aurre egin behar dien lau gazteren -Albert, Nidhi, Tom eta Deegii- istorio erreal eta bikaina kontatzen du. Proba horrek beren bizitzak aldatu eta hobetu ditzake betirako. Egun handia gertu dago eta herrialde desberdinetako (Kuba, India, Uganda eta Mongolia) gure lau heroiek hilabeteak daramatzate erronka honi aurre egiteko prestatzen. Hainbeste ahalegin egin ondoren, badakite beren eta familien helmuga markatuko duen ametsa errealtate bihurtzeko unea iritsi dela. Beren pasioa da, eta orain, helburu bakar bat dute: arrakasta. “Egun handiak” giza ahaleginari buruzko istorio zirraragarria eta bikaina da, hezkuntzari, itxaropenari eta adoreari egindako gorazarrea. Azkenean, edozer gauza gertatuta ere, haientzako garaipena izango da.

BOST EGUN DANTZATZEKO

| | | |
|---|---|-----------------------------|
|  <p>FIVE DAYS TO DANCE Una película de Rafa Moles y Pepe Andreu SI LAS PERSONAS PUDIERAN BAILAR JUNTAS, PUDERÍAN VIVIR JUNTAS</p> | Fitxa teknikoa | |
| | Jatorrizko izenburua | Five days to dance |
| | Jatorrizko hizkuntza | Gaztelania |
| | Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| | Urtea | 2014 |
| | Iraupena | 79 min |
| | Herrialdea | Espainia |
| | Generoa | Dokumentala |
| | Zuzendaria | José Andreu, Rafael Moles |
| Banatzailea | Euskaraz bikoiztua | |
| | Sinopsia | |
| CAMEO | <p>Dantzari bikote bat institutu bateko gela batean dago. Astelehena da. Gazte talde bati esaten diote bost egun dituztela eszenatokira igo eta dantzatzeko. Aste bete besterik ez gauzak aldatzeko. Denbora gutxi eta erronka handiegia: pertsonak mugitzea, munduak geldiarazten gaituenean. Dantzak rolak haustera behartuko ditu gazteak. Dantzatzeak elkar ukitzera behartuko ditu, komunikatzera,... Wilfried Van Poppel eta Amaya Lubeigt dira koreografoak. Holandarra eta euskalduna hurreznez hurren. Komunikazio eremua dute dantza, lekuak ez du ajola.</p> | |

GABRIELLE

| | | |
|--|---|------------------------------------|
|  <p>gabrielle Louise Archambault</p> | Fitxa teknikoa | |
| | Jatorrizko izenburua | Gabrielle |
| | Jatorrizko hizkuntza | Frantsesa |
| | Kalifikazioa | Zazpi urtetik gorakoentzako egokia |
| | Urtea | 2012 |
| | Iraupena | 109 min |
| | Herrialdea | Kanada |
| | Generoa | Drama |
| | Zuzendaria | Louise Archambault |
| Banatzailea | Euskarazko azpitoluekin | |
| | Sinopsia | |
| KARMA FILMS | <p>Gabrielle gazteak bizitzaren aurrean alaitasun kutsakorra du, bai eta musikarako dohain bikaina ere, Williamsen sindromea izan arren. Zentro bateko abesbatzan parte hartzen du Martinekin batera. Harekin maiteminduta dago baina ingurukoek ez diete haien arteko harremana nahi duten moduan bizitzen uzten. Taldea Robert Charlebois bertako kantari ospetsuarekin musika jaialdi entzutetsu batean parte hartzeko prestatzen ari dela, Gabrielle bere autonomia erakusten eta independentzia apur bat eskuratzen saiatuko da.</p> | |

GAZTE HARRIGARRIA T.S. SPIVET



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|---|
| Jatorrizko izenburua | L'extravagant voyage du jeune et prodigieux T.S. Spivet |
| Jatorrizko hizkuntza | Frantsesa |
| Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| Urtea | 2013 |
| Iraupena | 105 min |
| Herrialdea | Frantzia |
| Generoa | Komedia |
| Zuzendaria | Jean-Pierre Jeunet |

Banatzailea

Euskaraz bikoiztua eta azpigituluekin

Sinopsia

A CONTRACORRIENTE

T.S. Spivet bere familia bitxiarekin Montanako arrantxo batean bizi den hamabi urteko jenioa da. Kartografiako eta asmakariak sortzeko daukan talentuak ordainsaria jasoko du, zientzia-erakunde batek izen handko sari bat eman behar baitio. Maleta hartu eta ia herrialde osoa zeharkatuko du saria hartzeko.

IKUSI ARTE



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|-----------------------------|
| Jatorrizko izenburua | Hasta la vista |
| Jatorrizko hizkuntza | Gaztelania |
| Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| Urtea | 2012 |
| Iraupena | 109 min |
| Herrialdea | Belgika |
| Generoa | Komedia |
| Zuzendaria | Geoffrey Enthoven |

Banatzailea

Euskaraz bizkoiztua eta azpigituluekin

Sinopsia

YEDRA FILMS

Hogeitaka urteko hiru gazteren istorioa da hau. Adin horretan ohikoa den biziguraz beterik, ikaragarri dibertitu dira orain arte. Baina sekula ez dute gozatu emakumeekiko harreman intimorik. Ibilbide enologiko baten aitzakiapean, Espainiara abiatuko dira hirurak, egoera hori behin betiko konpontzeko. Ezerk ez ditu geldiaraziko, ezta euren ezgaitasun fisikoek ere: hiruretako bat itsua da, beste bat gurpil-aulkian dabil eta hirugarrenak ez du inolako mugikortasunik. Bidaia adiskidetasunaren laudorio bilakatuko da, sentiberatasun, indar, samurtasun eta gizatasunez beteriko ipuina, emozio guztietatik igaroaraziko gaituena.

IRUZURGILEA



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|---|
| Jatorrizko izenburua | The imposter |
| Jatorrizko hizkuntza | Ingelesa |
| Kalifikazioa | Hamabi urte baino gutxigoentzat ez gomendatua |
| Urtea | 2013 |
| Iraupena | 95 min |
| Herrialdea | Erresuma Batua |
| Generoa | Dokumentala |
| Zuzendaria | Bart Layton |

Banatzailea

Euskarazko azpitituluekin

Sinopsia

YEDRA FILMS

Iruzurgileak Amerikako Mendebalde Ertaineko familia batean desagerturiko haur baten azalean jartzen den gazte baten istorioa dakarkigu. Baina, desagertutako semea ilehoria da eta agertutako gaztea beltzarana, frantsesa eta 10 urte zaharragoa. Familiak gazte frantsesa euren semetzat ukatu beharrean etxean hartu eta desagertutako haurra dela esango dute. Benetako gertaeratan oinarritutako thriller zirraragarria.

KON-TIKI



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|---------------------------------|
| Jatorrizko izenburua | Kon-tiki |
| Jatorrizko hizkuntza | Norvegiera |
| Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| Urtea | 2013 |
| Iraupena | 118 min |
| Herrialdea | Norvegia |
| Generoa | Abentura |
| Zuzendaria | Joachim Rønning, Espen Sandberg |

Banatzailea

Sinopsia

A CONTRACORRIENTE

1947a, mundu guztia zirrarak jota dago Thor Heyerdahl gazte abenturazaleak espedizio harrigarri bati ekin diola ikusita – 4.300 itsas miliako bidaia egingo du Ozeano Pazikoan zehar Kon-Tiki izeneko baltsa batean. Live bere emaztearekin Markesa Uharteetan hainbat egun eman ondoren, Thorrek Hegoaldeko Itsasoko Uharteak Hego Amerikarrek hartu zituzten ustea dauka, milaka milia ekialderagotik etorrita. Igerian jakin ez eta uraren beldur izan arren, Thorrek kondairatutako itsas bidaia bere kabuz egitea erabaki du bere teoria frogatzeko.

KOKO DRAGOI TXIKIA



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|----------------------------------|
| Jatorrizko izenburua | Der kleine Drache Kokosnuss |
| Jatorrizko hizkuntza | Alemana |
| Kalifikazioa | Hautzarorako bereziki gomendatua |
| Urtea | 2014 |
| Iraupena | 80 min |
| Herraldea | Alemania |
| Generoa | Animazioa |
| Zuzendaria | Hubert Weiland, Nina Wels |

Banatzailea

PAYCOM MULTIMEDIA

Sinopsia

Koko eta Oskar kanpotarrak dira Dragoi uhartean. Koko, hegan egiterik ez duen dragoi-hegalaria da; Oskar, berriz, barazkijalea bihurtzea erabaki duen haragijalea. Bi lagunek izugarrizko abenturak biziko dituzte Matilda arantzurdearekin; hirurek, abenturaz abentura forma eta tamaina ezberdinetako dragoiak ezagutuko dituzte.

KOADERNO HANDIA



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|---------------------------------------|
| Jatorrizko izenburua | A nagy füzet |
| Jatorrizko hizkuntza | Hungariera |
| Kalifikazioa | 16 urtetik gorakoentzako egokia |
| Urtea | 2013 |
| Iraupena | 109 min |
| Herraldea | Alemania, Frantzia, Austria, Hungaria |
| Generoa | Drama |
| Zuzendaria | János Szász |

Banatzailea

CAMEO MEDIA

Euskarazko azpitituluekin

Sinopsia

Bigarren Mundu Gerrako azken urtean, gatazkaren izugarrikeriengatik etsita ama batek bere seme bikiak landara eramango ditu, amonaren etxera. Bi anaiak, eroso bizi zirenak, berehala ohartuko dira helduen munduan bizirauteko modu bakarra sentimendurik ez izaten ikatea dela. Ikasten duten guztia libreta batean idatziko dute, "koaderno handia" izenarekin bataiatuko dutena. Idazteko garaian kode zorrotz bati eutsiko dioten: prosa zehatza izango da eta emoziorik gabekoa.

MAYA ERLEA



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|--------------------------------|
| Jatorrizko izenburua | Maya the Bee Movie |
| Jatorrizko hizkuntza | Ingelesa |
| Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| Urtea | 2014 |
| Iraupena | 79 min |
| Herraldea | Australia |
| Generoa | Animazioa |
| Zuzendaria | Alexs Stadermann, Glenn Fraser |

Banatzailea

Sinopsia

DeAPLANETA

Jaioberritan, Maya erlea zurrunbilo bat da eta ez ditu erlauntzako arauak jarraitzen. Arau hauetako bat belarditik haratago bizi diren liztorrekin ez fidatzea da. Ezti preziatua desagertzen denean, liztorrak susmagarri nagusiak dira, eta erleek Maya bihurria hauen konplizea izan dela uste dute. Bere lagunetako inor ez da haren alde agertu... Willy izan ezik. Elkarrekin abenturaz beteriko bidaia hasiko dute lapurraren bila, erleen eta liztorren arteko borroka piztea saihestuz.

MAGIAREN ETXEA



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|------------------------------|
| Jatorrizko izenburua | The house of magic |
| Jatorrizko hizkuntza | Ingelesa |
| Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| Urtea | 2013 |
| Iraupena | 85 min |
| Herraldea | Belgika |
| Generoa | Animazioa |
| Zuzendaria | Ben Stassen, Jeremy Degruson |

Banatzailea

Euskaraz bikoiztua

Sinopsia

VERCINE

Jabeek bertan behera utzitako katutxo bat babes bila dabil ekaitzak astindu duen egun batean. Halako batean, non sartuko eta sekula pentsatuko ez zuen etxerik harrigarrienean. Izan ere, jabea agure mago bat da eta etxea automatatzen eta tramankulu bitxiz beterik dauka. Magoak katutxoari harrera beroa egin badio ere, ez dute abegi onez hartu magiaren etxeko bizilagun guztiek, eta hauetako batzuek etorri berria etxetik kanporatzeko plan bat asmatuko dute.

Egoerak okerrera egingo du agure magoa ospitaleratutakoan, bere ilobak aukera ezin hobea ikusiko baitu etxezerra saldu eta aberasteko. Gure heroi gazteak, magiaren etxeko bizilagunen artean bere tokia irabazi nahirik, bizikideetako batzuekin bat egingo du bere bizileku magikoa babesteko.

MARKO MAKAKO



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|-----------------------------|
| Jatorrizko izenburua | Marco Macaco |
| Jatorrizko hizkuntza | Danesa eta ingelesa |
| Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| Urtea | 2015 |
| Iraupena | 80 min |
| Herraldea | Danimarka |
| Generoa | Animazioa |
| Zuzendaria | Jan Rahbek |


Banatzaileria

PAYCOM MULTIMEDIA

Sinopsia

Marko Makako, bere ametsetan, krimen handiak argitzen dituen polizia atsegina da. Errealitatean, ordea, uharte tropikal lasai bateko hondartzazain arduratsua baino ez da. Lulu ederra berarekin maitemintzeko itxaropena zapuztu egingo zaio Karlo xarmagarria uhartera iristen denean eta Markoren hondartzan tximu erraldoi itxurako kasino eraikitzen duenean. Jeloskor, Karlo ikertzen hasiko da, susmagarri delakoan. Zuzen dabil gainera, Karlok uhartea bereganatu eta bere burua presidente izendatu nahi duela deskubrituko baitu.

NESKA BANDA



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|---------------------------------|
| Jatorrizko izenburua | Girlhood |
| Jatorrizko hizkuntza | Frantsesa |
| Kalifikazioa | 12 urtetik gorakoentzako egokia |
| Urtea | 2014 |
| Iraupena | 112 min |
| Herraldea | Frantzia |
| Generoa | Drama |
| Zuzendaria | Céline Sciamma |

Bantzailea


ABORDAR

Euskarazko azpitituluekin

Sinopsia

Marieme familia-inguruneak, kale itsu batera daraman eskola-ibilbideak eta auzoko mutilen legeak zapalduta bizi da, baina hiru neska askatasunzale ezagutzean, bizimodu berri bat hasiko du. Izena eta janzkera aldatu eta ikastetxea utziko du bandan onar dezaten, askatasunerako bidea izango den itxaropenarekin.

NOLA?



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|-----------------------------|
| Jatorrizko izenburua | Nola? |
| Jatorrizko hizkuntza | Ingelesa |
| Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| Urtea | 2015 |
| Iraupena | 65 min |
| Herrialdea | Euskal Herria |
| Generoa | Dokumentala |
| Zuzendaria | Fermin Muguruza |

Banatzailea

Euskarazko azpituluekin

Sinopsia


TALKA RECORDS


Bere xarmak erakarrita, Fermin Muguruza The Big Easy-ra joan da disko bat grabatzera: Irun Meets New Orleans. Bertan, alde batetik, bere ibilbideko zortzi abesti moldatu ditu New Orleanseko doinuetara eta hiriko bi klasiko interpretatu ditu, eta bestetik, Nola? Dokumentala zuzendu du (hango egoeraz, Katrinaren 10.urteurrenean). Treme-ko pasarte batekin paralelotasun ugari ditu: abestian oso ondo integratuta daude, protagonistek kontaktzen dutenarekin lotuta. Hala, musika narrazioaren pertsonaia bat baino gehiago bilakatzen da. Filmaren ardatz nagusia George Ingmire da (WWOZko esataria, dokumentalista eta urakanak izan zuen eraginaren inguruko hainbat irratsaioren aurkezlea). Bere diskurtso kritiko eta ironikoarekin, diskoaren grabazioaren kontakizuna, gauzen egoeraren inguruko gogoetekin tartekatzen du.

| OMAR | | |
|---|---|---------------------------------|
|  | Fitxa teknikoa | |
| | Jatorrizko izenburua | Omar |
| | Jatorrizko hizkuntza | Arabierra |
| | Kalifikazioa | 16 urtetik gorakoentzako egokia |
| | Urtea | 2013 |
| | Iraupena | 98 min |
| | Herraldea | Palestina |
| | Generoa | Drama |
| Zuzendaria | Hany Abu-Assad | |
| Banatzailea | Euskarazko azpituluekin | |
| | Sinopsia | |
| CAMEO | <p>Omar gazte palestinarra da eta balak saihestera ohitu da Nadiari, bere maitasun sekretuari, bisita egin eta horma gurutzatzen duen bakoitzean. Egunez okin lanak egiten ditu; gauez, berriz, Israelen okupazioaren kontra borrokatzeko prestatzen da bere haurtzaroko lagunekin, Nadiaren anaia Tarekekin eta Amjadekin. Ordea, bere bizitza betirako aldatuko da egun batean. Jada ezer ez da berdina izango ez bera ez eta Nadiarentzat. Indarkeria, traizio eta gorrotoak ekarritako zurrunbilo batek harrapatuko du.</p> | |

| OSPEA 20 PAUSORA | | |
|---|--|-----------------------------|
|  | Fitxa teknikoa | |
| | Jatorrizko izenburua | 20 Feet from Stardom |
| | Jatorrizko hizkuntza | Ingelesa |
| | Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| | Urtea | 2013 |
| | Iraupena | 91 min |
| | Herraldea | Ameriketako Estatu Batuak |
| | Generoa | Dokumentala |
| Zuzendaria | Morgan Neville | |
| Banatzailea | Euskarazko azpituluekin | |
| | Sinopsia | |
| A CONTRACORRIENTE | <p>Musika banda ospetsuenetako batzuen atzean zeuden ahots onenen bizitza aztertzen duen dokumentala. Bruce Springsteen, Stevie Wonder, Mick Jagger edota Sting bezalako abeslariarekin elkarrizketak.</p> | |

| |
|--|
| |
|--|

| PI XKANA-PI XKANA | | |
|---|--|----------------------------------|
|  | Fitxa teknikoa | |
| | Jatorrizko izenburua | Paso a paso |
| | Jatorrizko hizkuntza | Portuguesa, ingelesa, suediera |
| | Kalifikazioa | Hautzarorako bereziki gomendatua |
| | Urtea | 1996 |
| | Iraupena | 91 min |
| | Herrialdea | Portugal |
| | Generoa | Animazioa |
| | Zuzendaria | - |
| Banatzailea | Sinopsia | |
| RITA & LUCA FILMS | Sei istorio poetiko gozo eta dibertigarrik zenbait pertsona eta animaliaren gorabeherak kontatzen dizkigute: ozeanoan bizi den kartoizko mutiko batenak, ilargira heldu nahi duen beste batenak eta oihaneko zarata arraro batek harrituta dauzkan animalia batzuenak. | |

| PURA VIDA | | |
|---|---|---------------------------------|
|  | Fitxa teknikoa | |
| | Jatorrizko izenburua | Pura vida |
| | Jatorrizko hizkuntza | Ingelesa |
| | Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| | Urtea | 2012 |
| | Iraupena | 81 min |
| | Herrialdea | Espainia |
| | Generoa | Dokumentala |
| | Zuzendaria | Pablo Iraburu, Migueltxo Molina |
| Banatzailea | Euskarazko azpitoluekin | |
| CAMEO | Sinopsia | |
| | Himalayaren hegoko aldean, 7.400 metroko altueran, mendizalea txarto sentitzen hasten da. Kideak larrialdi-abisua eman eta Himalayako inoizko erreskate ekimenik sinestezinena hasten da. Iñaki Ochoa de Olza munduko tontorrik arriskutsuenetako den Annapurna igotzean gaixotu zen mendizalea da. Bere tontorra jotzen ahalegintzen direnen %40k bertan galtzen dute bizitza. "Pura Vida" aurrekaririk ez duen erreskate-eginkizuna da, jatorri desberdin baina grina bereko zortzi lagun batu zituen zeregina. Zortziek dute igotzen dituzten mendiengatiko neurrigabeko grina eta, batez ere, euren bizitzak bizi izateko hautatu duen modu bakar, sendo eta askotan ulertugabea partekatzea lotzen ditu. | |

SHORT TERM 12



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|---------------------------------|
| Jatorrizko izenburua | Short Term 12 |
| Jatorrizko hizkuntza | Ingelesa |
| Kalifikazioa | 12 urtetik gorakoentzako egokia |
| Urtea | 2012 |
| Iraupena | 96 min |
| Herrialdea | Ameriketako Estatu Batuak |
| Generoa | Drama |
| Zuzendaria | Destin Daniel Cretton |

Banatzailea

Euskarazko azpituluekin

Sinopsia

LA AVENTURA AUDIOVISUAL

Gracek ikuskatzaile gisa lan egiten du egoera ahulean dauden nerabeentzako harrera-zentro batean. Izugarri atsegin du bere lana eta gazteen zainketan murgiltzen da erabat batzuetan bere iragan ilunaren aurka borroka egin behar badu ere. Jayden zentrora iristean, haurtzarotik herrestan daramatzan arazoei bizkar ematen jarraitzea ezinezkoa dela ohartuko da Grace. Bere bizitza pribatuaren eta lan-bizitzaren arteko oreka hauskorra arriskuan egongo da eta Gracek muturreraino eramaten duen krisia gainditzeko modua aurkitu beharko du.

TARZAN



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|-----------------------------|
| Jatorrizko izenburua | Tarzan |
| Jatorrizko hizkuntza | Ingelesa |
| Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| Urtea | 2013 |
| Iraupena | 94 min |
| Herrialdea | Alemania |
| Generoa | Animazioa |
| Zuzendaria | Reinhard Klooss |

Banatzailea

Euskaraz bizkoiztua eta azpituluekin

Sinopsia

EONE FILMS

Safari animatu ikusgarria paisaia exotiko bizi-bizian, Tarzan akzioz beteriko bidaia ederra da mundu izugarri ongi irudikatuan. Bertan lehenengoz erabiltzen da motioncapture teknika Edgar Rice Burroughsen pertsonaiari bizia emateko.

ZIPI & ZAPE ETA KANIKAREN KLUBA



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|------------------------------------|
| Jatorrizko izenburua | Zipi & Zape y el club de la canica |
| Jatorrizko hizkuntza | Gaztelania |
| Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| Urtea | 2013 |
| Iraupena | 92 min |
| Herrialdea | Espainia |
| Generoa | Abentura |
| Zuzendaria | Oskar Santos |

Banatzailea

Sinopsia

DISNEY

Zipi eta Zape zigortu egin dituzte uda Esperantza ikastetxean igarotzera. Berreziketa zentro bat da hori, Falconetti betoker beldurgarri eta zorrotzak zuzentzen duena. Laster jakingo dute leku hartan jolastea ere debekatuta dagoela. Hortxe sortuko dute Kanikaren Kluba, helduen aginpideari erronka botatzen dion umeen erresistentzia. Adimena, ausardia eta adiskidetasunean duten fede etenezinaz baliatuz, ikastetxean gordetzen den sekretu misteriotsu bat aurkitu eta euren bizitzetako abenturarik zirraragarriena biziko dute.

HIPPOCRATE



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|---------------------------------|
| Jatorrizko izenburua | Hippocrate |
| Jatorrizko hizkuntza | Frantsesa |
| Kalifikazioa | 12 urtetik gorakoentzako egokia |
| Urtea | 2014 |
| Iraupena | 102 min |
| Herrialdea | Frantzia |
| Generoa | Komedia drama |
| Zuzendaria | Thomas Lilti |

Banatzailea

Euskarazko azpitituluekin

Sinopsia

CAMEO

Benjamin mediku on bat izatera destinatua dago, baina bere lehen esperientzia ogibide horretan ez da nahi bezalakoa izango. Bere aitak lan egiten duen ospitalean egingo mediku moduan lana lehenengo aldiz. Praktika teoria hutsala baino konplexuagoa da eta duen erantzukizuna erabatekoa da. Bere esperientzia Abdelekin biziko du, zeinak berak baino esperientzia handiagoa duen. Benjaminek bere beldurrei eta mugei aurre egin beharko dio.

ORAINDIK HEMEN GAUDE



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|---------------------------------|
| Jatorrizko izenburua | We are still here |
| Jatorrizko hizkuntza | Ingelesa |
| Kalifikazioa | 18 urtetik gorakoentzako egokia |
| Urtea | 2015 |
| Iraupena | 84 min |
| Herraldea | Ameriketako Estatu Batuak |
| Generoa | Beldurrezkoa |
| Zuzendaria | Ted Geoghegan |

Euskarazko azpituluekin


Banatzailea

Sinopsia

LA AVENTURA
AUDIOVISUAL

1985 inguruan Megan Halsey izan zen. Mamuak eta gaizkia etxe inguruan zituen Barbara Crptom da protagonista, Re-Animatoren neska laguna. Film honen ustekabeko nagusia Barbara bere senarra laguntzara heltzen medium Lisa Marie! dela izango da.

FALTA DEN IRUDIA



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|---------------------------------|
| Jatorrizko izenburua | L'Image manquante |
| Jatorrizko hizkuntza | Frantsesa |
| Kalifikazioa | 12 urtetik gorakoentzako egokia |
| Urtea | 2013 |
| Iraupena | 95 min |
| Herrialdea | Kanbodia |
| Generoa | Dokumentala |
| Zuzendaria | Rithy Panh |

Euskarazko azpitituluekin


Banatzailea

ABORDAR S.L.

Sinopsia

Falta den irudia dokumentalean Rithy Panh zuzendariak bere bizitzako oroitzapen gordinenak kontatzen ditu Khmer Gorrien propaganda artxibo irudiak eta buztinez eginiko figurak erabiliz. Zuzendariak berak honela laburbiltzen du egindako lana: "urte luzez ibili naiz galdutako irudi baten bila: Kanbodiako gobernuan zeuden Khmer Gorriek 1975 eta 1979 urteen artean eginiko argazki bat. Irudi bat bakarrik ezin daiteke izan genozidio baten proba, baina pentsatzera eta gogoeta egitera behartzen gaitu, Historia erregistratzera. Alferrik bilatu dut fitxategietan, paper zaharren artean, Kanbodiako herrixketan. Gaur, badakit: irudi horrek galduta behar du; beraz, sortu egin dut".

FATIMA



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|-----------------------------|
| Jatorrizko izenburua | Fatima |
| Jatorrizko hizkuntza | Frantsesa eta arabiera |
| Kalifikazioa | Publiko guztientzako egokia |
| Urtea | 2015 |
| Iraupena | 79 min |
| Herrialdea | Frantzia-Kanada |
| Generoa | Drama |
| Zuzendaria | Philippe Faucon |

Euskarazko azpitituluekin

Banatzailea

Sinopsia

SURTSEY FILMS

Fatima aljeriarra da, dibortziatua dago eta Frantzian bizi da bere bi alabekin: Souad, nerabe bihurria, eta Nesrine, Medikuntza ikasten hasi berria den 18 urteko gaztea. Fatimak ia ez du frantsesez hitz egiten, eta hori oso oztopo handia da beraren eta bere alaben arteko harremanerako. Alabak dira Fatimaren bizitzan garrantzitsuena eta haietaz oso harro dago. Alabei ahalik eta etorkizun onena emateko, eguneko ordu asko garbitzaile gisa lan egiten pasatzen ditu. Egun batean istripu bat du eta denbora batez atsedean hartu behar du. Denbora hori Souadi eta Nesrineri frantsesez esan ezin dien guztia arabieraz idazteko baliatzen du.

UDAKO AMODIO BAT

| | | |
|---|---|---------------------------------|
|  | Fitxa teknikoa | |
| | Jatorrizko izenburua | La belle saison |
| | Jatorrizko hizkuntza | Frantsesa |
| | Kalifikazioa | 12 urtetik gorakoentzako egokia |
| | Urtea | 2015 |
| | Iraupena | 105 min |
| | Herrialdea | Frantzia-Belgika |
| | Generoa | Drama eta amodioa |
| | Zuzendaria | Catherine Corsini |
| Euskarazko azpitituluekin | | |
| Banatzailea | Sinopsia | |
| CAMEO | <p>1971. Delphine baserritar neska gaztea Parisera doa familiaren menpetik ihes egin eta ekonomikoki emantzipatu nahi duelako. Carole paristarra Manuelekin bizi da hirian eta feminismoaren printzipioak defendatzen ditu sutuki. Delphinek eta Carolek elkar ezagutuko dute eta euren arteko amodio-historiak bizitza aldatuko die.</p> | |

INTZIRIA



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|---------------------------------|
| Jatorrizko izenburua | The Wailing/ Goksung |
| Jatorrizko hizkuntza | Koreera |
| Kalifikazioa | 16 urtetik gorakoentzako egokia |
| Urtea | 2016 |
| Iraupena | 156 min |
| Herrialdea | Hego Korea-AEB |
| Generoa | Thriller |
| Zuzendaria | Na Hong-jin |

Euskarazko azpitituluekin


Banatzailea

Sinopsia

LA AVENTURA
AUDIOVISUAL

Blanca Suburen (Sitges) goraiatu aurretik, Sail Ofizialean Cannes erdia txundituta utzi zuten nonsense zoragarriko 156 minutu hauek. *The Chaser* (2008) eta *The Yellow Sea* (2010) lanen egileak zuzenduta eta idatzita, edozein munstroren aurkako Abbot-en eta Castello-ren lan bat dakar gogora, edo Hego Korean konjuruen edertasunari, folklorikotasunari, buruarintasunari eta ketasunari buruzko gogoeta. Esaterako, eliza poloniar ilunak egiten duenarekin ere egiten da erkaketa. Goi-mailako suspensea, ikuspegi polizialek. Umore beltza baina oso ona. Euren zuhurkerien artean nahasten diren familien eta herri baten erretratu beltzaren erakusleiho den filmean.

ESKERRIK ASKO, UGAZABA!



Fitxa teknikoa

| | |
|----------------------|----------------------------|
| Jatorrizko izenburua | Merci patron! |
| Jatorrizko hizkuntza | Frantsesa |
| Kalifikazioa | Publiko guztientzat egokia |
| Urtea | 2015 |
| Iraupena | 84 min |
| Herrialdea | Frantzia |
| Generoa | Dokumentala |
| Zuzendaria | François Ruffin |

Euskarazko azpitituluekin

Banatzailea

Sinopsia

COMPACTO

Nork ez du sekula amets egin bere nagusia mendekatzeaz? XXI. Mendeko Robin Hood François Ruffin-ek ideia bakar bat du buruan: Bernard Arnault, Frantziako gizonik aberatsena eta Dior edo Givenchy bezalako marken jabeak eginiko bidegabekeriak aireratzea. Suspense, emozio eta espioitzaz betetako komedia.